

ESPANIAR ZEINU-HIZKUNTZA ETA TESTU-GENEROAK: INTERPRETEGAIEN ETA GORREN EKOIZPENEN AZTERKETA ETA ZENBAIT ERRONKA DIDAKTIKARAKO

Tesiaren egilea: Ainhoa Moiu

Unibertsitatea: Mondragon Unibertsitatea (MU)

Saila: Berrikuntza eta esku-hartzea gizarte kulturantz eta eleanizetan Saila

Tesi-zuzendaria: Arantza Ozaeta Elorza eta Ines Garcia-Azkoaga

Tesiaren laburpena:

Tesi honetan espainiar zeinu-hizkuntza dugu aztergai, zehazkiago esanda, Euskal Herriko gorrek zeinuz komunikatzeko erabiltzen duten espainiar zeinu-hizkuntzako dialektoa. Doktorego-tesi honen helburua da zeinu-hizkuntzaren funtzionamendua hobeto ezagutzea eta interpretegaiek espainiar zeinu-hizkuntzaren ikasketa-prozesuan eskuratzen dituzten lorpenak eta dituzten zailtasunak ezagutzea.

Azken urteotan espainiar zeinu-hizkuntzari testuinguru berria aurkeztu zaio; izan ere, Espainiako Estatuak espainiar zeinu-hizkuntza hizkuntza gisa aitortu eta gorren hizkuntza-eskubideak zehaztu ditu 27/2007 legean. Behin aitortza lortuta, espainiar zeinu-hizkuntzak normalizazioa du hurrengo erronka nagusia, hau da, eskolara eta gizarteko eremu guztietara bere erabilera zabaltzea. Normalizazioaren ibilbideak hainbat erronka baditu ere, gure arreta zeinu-hizkuntzako interpreteen prestakuntza da; izan ere, gorren eta entzuleen arteko komunikazio-zubiak eraikitzean lan egiten duten profesionalak dira eta, horrenbestez, zeinu-hizkuntzaren normalizaziorako eragile garrantzitsuak.

Ikerketan, zeinu-hizkuntzaren alderdi komunikatiboa hartu nahi izan dugu kontuan, horregatik, testu-generoen ikuspegi teoriko-metodologikoa hartu dugu oinarri. Horrela, interpretegaiek (ahoz eta zeinuz) eta gorrek (zeinuz) ekoiztutako bi testu-genero aztertzen dira: sukaldeko errezeta eta argudio-testua.

Testuen arkitekturan oinarritutako analisiaren bidez hiru dira kontuan hartu diren alderdiak: testuen azpiegitura, testu-antolatzaileak eta agentibitatea. Emaitzek erakusten dute ahozko eta zeinuzko testuek azpiegitura komunikatibo berdintsuari jarraitzen diotela eta testu-genero bakoitzean berezkoak diren ezaugarriak agertzen direla. Hala eta guztiz ere, interpretegaiek testuen ekoizpenean aurkitzen dituzten zailtasun nagusiak zeinu-hizkuntzak berezko dituen estrategia eta mekanismoetan kokatzen dira. Kontuan izan behar dugu zeinu-hizkuntza ahozko hizkuntza ez bezala modalitate biso-espazialeko hizkuntza dela, interpretegaiek hizkuntzaren modalitatearekin dituzte zailtasunak. Esate baterako, zeinu-hizkuntzako testu-ekoizpeneko

eremu ezberdinetan zeinu-espazioak duen garrantzia ikusi ahal izan dugu. Azterketak agerian utzi du zeinu-espazioaren kudeaketak duen lotura testu-antolatzaileekin eta pertsonen erreferentzia-mekanismoekin; halaber, agerian jarri du interpretegaien zailtasun handiena zeinu-espazioaren kudeaketarekin lotuta dagoela.

Ikerketak zeinu-hizkuntzak testuen ekoizpenerako dituen estrategia eta mekanismoen inguruko ezagutzak zabaltzen ditu eta erakusten du, batetik, zeinu-hizkuntzako ekoizpenak testu-generoen ikuspegitik aztertzea badagoela, eta bestetik, interpreteen prestakuntzan aintzat hartu behar direla bereziki zeinu-espazioaren kudeaketan eragiten duten testu-mekanismoak.